



426 boz-emailek ezetz esan diote AHTren proiektuari Alegiko galdeketan

PARTE-HARTZEA ▶ Hautesleen %31k hartu zuten parte egun osoan zehar eta %95a aurka azaldu zen ▶ 5



Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, 451 lagunek eman zuten euren bozka. A. SORONDO



E. MAIZ

ISABEL CATARAIN ▶ MOJA

«Ezin dut mezarik eman, nirea ospakizuna da»

Alegialdeko hainbat herritan igandero ospakizuna ematen du Idiazabalgoak ▶ 4

TOLOSA ▶

Igeriketako neskek Lehenengo Mailan mantentzea lortu dute

Oso maila ona erakutsi zuten tolosarrek Usabal kiroldegian ▶ 2

LEITZA ▶

Aurrera hirugarren, asteburuan irabazita

Bere «ohiko forma» erakutsi dute ▶ 7

ELDUAIN ▶

Lehen partida irabazi ostean, finaletik gertu dago Zeberio II.a

Agirrezabalarekin 40-33 irabazi zieten Matxi III.ari eta Lizanori ▶ 6

VILLABONA ▶

Bi gazte atxilotu dituzte beste bati erasotzeagatik

Gorputz guztian jaso zituen kolpeak eta Donostiako erietxera eraman zuten

E. EZEIZA

Gazte bati jotzea leporatuta, bi pertsona atxilotu zituen herenegun Ertzaintzak Villabonan. Gertaera 07:00ak aldera eman zen, herriko kale nagusian.

Ertzainek eraso gertatu zen lekura joatean mutil gazte bat aurkitu zuten bertan, aurpegia odoldua eta kolpatua zuela, baita toraxa ere. Iturriek diotenaren arabera bi pertsona kotxetik jaitsi eta gaztea erasotu zuten, ostikoak eta kolpeak emanaz gorputz guztian. Ondoren, berriro autora igo eta alde egin zuten. Erasotua anbulantzian eraman zuten Donostiako erietxera. Minutu batzuk beranduago, Ertzaintzak Villabonako Udaltzainen laguntza erasotzaileetako bat atxilotzea lortu zuen. Honek odolez zikindua zuen arropa. Igande eguerdian, Zizurkilen atxilotu zuten bigarren erasotzailea. L.P.A eta M.M.M., 22 eta 23 urteko bi gazteak Tolosako Guardiko Epaitegira eraman zituzten atzo.

TOLOSA ▶

Kobrea lapurtzen saiatu dira lantegi batean

E. EZEIZA

Lau gizonezko atxilotu zituen herenegun Ertzaintzak, Tolosako lantegi batean kobrea lapurtzen saiatzeagatik. Barne sailak adierazitakoaren arabera, gertaera eguerdi aldean izan zen. Pabilioiko zaintzaileak Ertzaintzari deitu zion lantegi barruan zarak entzun zituenean. Agentek hara joatean hiru gizon ikusi zituzten, bitartean, laugarrena motxila batekin irten zen lantegitik. Azkenik, 19 eta 41 urte bitarteko akusatuek atxilotuak izan ziren eta Tolosako epaitegira eramanak.

TOLOSA ▶ IGERIKETA

Lehendabiziko mailan mantentzea lortu dute Tolosaldeko neskek

Joan den asteburuan jokatu zen Usabal kiroldegian jubenil eta infantil mailako Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketa

ERREDAKZIOA

Joan den asteburuan Kluben Arteko Euskal Herriko Igeriketa Txapelketa jokatu zen Usabalen. Denera 330 igerilari lehiatu ziren neska nahiz mutilen modalitateetan. Nesketan, oso zaila zuten Tolosaldekoek Euskal Herriko onenen artean mantentzea, baina egindako lan eta esfortzu handiari esker, maila oso ona erakutsi zuten eskualdekoek. Hala, 209 punturekin, talde gazteek bere mailan mantentzea lortu zuten.

Bestalde, mutilek, uste baino emaitza hobeak lortu zituzten, zortzigarren postuan amaitu zutelarik txapelketa.

Banakakoetan, Pablo Uzku-dunek 200 metro bizkarrez proban, Espainiako Junior Mailako Txapelketa parte hartze-ko lortu behar zuen gutxiengo marka eskuratu zuen. Aitor Lekuonak berri, bi urteko garapenaren ondoren, Espainiako-an infantiletan parte hartze-ko txartela irabazi zuen.



Jende ugari bildu zen Usabal kiroldegian jokaturako txapelketan. HITZA

SAILKAPENA ▶

MUTILAK

1. Bidasoa XXI.
2. Berdulia IKT
3. Amaya Ciudad D
4. Getxo IW
5. Judizmendi IW
6. Askartza CN
7. Santurtzi CN
8. Tolosaldea IKT
9. Oarsoaldea IKE
10. Anaitasuna SD

NESKAK

1. Bidasoa XXI.
2. Berdulia IKT
3. Judizmendi CN
4. Amaya Ciudad D
5. Galdakao I
6. Laudio I
7. Fortuna CD
8. Oarsoaldea IKE
9. Barakaldo CN
10. Tolosaldea IKT

ANOETA ▶ KIROLAK



Ikusleak wu shuarekin harritzen

Erredakzioa ▶ Larunbatean jokaturako Gipuzkoako XIX. Wu shu Txapelketaren ondoren, herenegun erakustaldia izan zen Anoetako kiroldegian. Goiz guztian zehar klub ezberdinetako nes-

ka-mutilek saio eta erakustaldi ezberdinak eskaini zituzten. Tartean izan zen ere Munduko Txapelketa parte hartu eta domina lortu zuen Ramon Quina euskalduna. ANDER SORONDO

TOLOSA ▶

Zortzi golek in irabazi dute Hegoaldeko neskek

E. EZEIZA

Nabarmen irabazi zuen atzo Hegoaldeko FSF Kadizen aurka. 8-3ko emaitzaren garaitu zuten atzo Usabal kiroldegian jokaturiko norgehiagokan. Garaipenaren sekretua Tolosako neskek egindako joku onean egon zen. Izan ere, egindako jokaldietan asmatu zuten, eta aukerak aprobetxatu zituzten.

Lehengo zatian lorturiko emaitza onak, eta markagailuko diferentziak gehiago indartu zituen Dani Gartziaeren neskek. Hala, bigarren zatia 8 eta 3ko emaitzarekin etxeratu ziren neskek.

TOLOSA ▶

Gaur da Haur Liburuaren Nazioarteko eguna

Ospakizun honen harira ipuin kontalaria izango da 12:00etan Errota liburutegian

E. EZEIZA

Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzen da gaur. Horregatik, egun berezi honetan ohi baino presentzia handiagoa izango du haur eta gazte literaturak.

Ospakizun honen harira *Sirenia* izeneko erakusketak ikusgai izango da apirilaren 23ra arte. Bestetik, gaur 12:00etan, Errotan, 5 eta 10 urte bitarteko haurrentzat ipuin kontaketa izango da. Bertan, *El secuestro de la bibliotecaria* izeneko istorioa kontatuko dute. Gainera, mailagun liburua hartzen duten haurrei pioleta bana oparitutuko diete.

Mundu mailan urtero ospatzen da egun hau. IBY Haur Liburuarentzako Nazioarteko Erakundeak antolatzen du hori, Christian Andersen idazle daniarraren jaiotza oroitzeko. Urtero, erakunde horretako estatu bat arduratzen da haurrei zabaldu beharreko mezua eta egitaraua egiteaz.

MENDIA ▶

14 zortzimilako dituen lehen emakumezkoa izan daiteke Pasaban

Bi edo hiru urtetan saiatuko da erronka berria gainditzen; lehen gailurra 8.091 metro dituen Annapurna izango da

INIGO TERRADILLOS

Edurne Pasaban mendizale tolosarra erronka berri bati ekitako prest dago. Hain zuzen ere, munduko 14 gailur garrantzitsuenak igo dituen lehen emakumezkoa izan daiteke, hori egiten saiatuko baita ondorengo bi edo hiru urtetan.

Espainiako TVE kateko *Al filo de lo imposible* saioarekin burutuko du erronka hau. Saio honetan ikusi ahal da dokumental ezberdinen eta saio bereziden bidez tolosarrak nola egiten dien gailurrei aurre.

Pasabane 8.000 metro baino gehiago dituzten zortzi gailur eginak ditu dagoeneko. Bere azken mendia Nanga Parbat izan zen; hau gainditu ostean, urte eta erdi egon zen gairorik. Aurretik, 2004ean, K2 gailurra egin zuen, hau igotzen



Edurne Pasaban (erdian) Nanga Parbat gailurra igotzen. HITZA

lehen emakumezkoa izan zelarik. Halaber, espedizio honek ere ondorio larriak utzi zizkion; izan ere, oinetako hatzen bi falange galdu zituen hotzaren erruz. Munduan 13 edo 14 gizonek igo dituzte 14 zortzimilako, eta emakume batek, soilik

igo ditu horietatik bederatzik. Pasaban bezala, beste emakumezko italiar batek zortzi zortzimilako igo ditu.

Erronka berri honi Nepalen dagoen eta 8.091 metro dituen Annapurnarekin emango dio hasiera tolosarrak.

ARETO FUTBOLA ▶

Laskorainek 5-6 garaitu du Xagua Klub taldea

Bosgarren garaipena jarraian batu dute; hurrengo bi asteetan ez dute partidarik

ERREDAKZIOA

Joku aldetik «momenturik onenean egon ez arren», bosgarren garaipena segidan zenbatu ahal izan zuten tolosarrek joan den larunbatean Ermuako Xagua Klub taldearen aurka. Arerioak, sailkapeneko postu deserosoetatik urruntzeko zuen asmo tinkoak, «arazo eta buruhauste ugari» ekarri zizkien partidaren nondik norakoa behar bezela irakurtzen asmatu ez zuten ikastolako mutilei.

Bizkaitarrek eskarmentuz beteriko talde arriskutsua osatzen dute, eta ondorioz, Laskorain areto futbol taldeko Egizabal entrenatzaileak, banakako defentsa planteatu zuen kantxa barruan aurkariaren barneraketak ezereztatzeko; hala ere, etxeko taldea izan zen markagailuan lehendabizi aurreratu zena areaz kanpoko jaurtiketa bikain bati esker. Tolosarrek dena den, ez zuten burua makurtu eta Telleriak, Gilek eta Saldias kapitainak 1-3koa igo zuten elektronikora. Lehen zatia amaitezear zegoenean, Ermuakoek azken segundoan eta txirrinaren mugan, alde murriztu ahal izan zuten, 2-3 beraz atsedendian.

Gol honek, orratz baten moduan jokatu eta taldea bere honetik atera zuen, izan ere,

bigarren zatia hasi bezain pronto, bizkaitarren beste bi sareratzek horitxoan eske- ma guztiak hankaz gora jarri zituzten. Ondorengo uneak «larriak» izan ziren tolosarrentzat, hala ere, Egizabalen mutilen lanak, kaltea areagotzea ekidin zuen. Aipagarria izan zen minutu horietan zehar, Alonsok eginiko lana.

Amalera hurbiltzen zihon eanean, horitxoek aurkaria «setiatu» zuten hamaika aukera garden sortuz. Azkenik, atezain bizkaitararen gelditu ugari bere muga jo zuten eta urrezko bi minutu esker Gilek, Barriolak eta Saldias 4-6koa ezarri zuten. Etxekoek ez zuten etsi eta partidari buelta ematen ahalegindu ziren. Hala, segundo gutxi gertatzen zirenean, 5-6-koa lortu zuten. Dena den, ez zen gol gehiago egiteko astirik egon eta emaitza horrek amaitu zen norgehiagoka.

3 puntu batu dituzte, beraz, azken partida irabazita, eta hurrengo bi asteetan ez dute partidarik izango horitxoan taldea osatzen duten Javi delagatuak, Egizabal entrenatzaileak, Gonzalez, Telleria, Alonso, Telletxea, Gil, Yustos, Saldias, Amatriain, Barriola eta Domentxek.

Harrobiari dagokionez, Alonsoren mutilek 2-1 galdu zuten Orion.

INGURUMENA ▶



Laskoraingo ikasleak zabortegia bisitatzen

Erredakzioa ▶ Laskorain Ikastolako LHko 5. eta 6. mailako ikasleak Sasieta zabortegian eta Legazpiko hondakin sailkatze plantan izan ziren bisitan pasa den astean. Eskola Agenda 21 egitarauaren barruan, Tolosako ikastetxeak hondakinen gaia ari dira jorratzen ikastaro honetan zehar. Hor kokatzen da irteera hau. Sasieta zabortegia Beasaingo Salvatore auzoan dago,

1991. urteko martxoan jarri zen abian eta bertan 3 mankomunitatetako hiri-hondakinak kudeatzen dira, guztira 185.000 biztanle. Legazpiko plantan edukinontzi desberdinetan botatzen ditugun hondakinak sailkatu egiten dituzte, ondoren birziklatu ahal izateko. Bi lekuen funtzionamendua ezagutzeko aukera izan zuten Laskoraingo ikasleek. HITZA

KULTURA ▶

Arrautzaren inguruko hitzaldia, gaur Frontonen

Arrautzarekin eginiko errezeta orijinalena sarituko duten lehiaketa ere egingo dute

ERREDAKZIOA

David de Jorge sukaldari ezagunak eta Ignacio Ruiz de Alegria abesbatza zuzendari eta abeslariak *Arrautza+kantua* hitzaldia eskainiko dute gaur, 19:30ean Tolosako Fronton jatetxean. Hitzaldi hau Tolosako Udalak etzi hasi eta hilaren 8ra arte Zerkausian antolatutako duen Arrautzaren Festaren baitakoa da. Bizitzan arrau-

tzak dituen erabilera anitzak eta urteko garai desberdinetan dituen egiturak zein diren azalduko dituzte.

Hitzaldi honen ostean, Fronton jatetxean bertan lehiaketa berezi bat antolatu dute. *Arrautza 1 + pertsona 1 = errezeta 1* izena jarri dioten lehiaketa honen bidez, arrautza osagai bezala izango duen errezetarik orijinalena saritu nahi dute.

ISABEL CATARAIN ▶ MOJA



ENERITZ MAIZ

«Ez naiz apaiza eta ezin dut mezarik eman, nirea ospakizuna izaten da»

Isabel Catarain moja idiazabalدارra, igandero-igandero etortzen da Donostiatik Alegialdeko hainbat herri txikietara apaizaren ordezkari ospakizunak ematera

ENERITZ MAIZ

Isabel Catarain (1933) moja idiazabalدارra Donostian bizi da beste bi mojekin batera. Apaiz eskasia dela eta, Alegialdean ospakizunak ematen ari-tzen da igandero-igandero.

Noiz erabaki zenuen moja sartzea?

Nik txikitatik apaiza izan nahi nuen, sotana jantzi eta baserri-zerri bizikletan ibiltzeko. Hori gustatzen zitzaidan baina neska nintzelako apaiza ezin nuela izan konturatzean, moja sartu nintzen. Hemeretzi urte-ekin Madrileraino joan nintzen mojak nolakoak ziren ezagutzera. Aitona zena haserretu egin zitzaidan eta moja ez joateagatik nesken bizikleta oparitu zidan. Baina ni, hala ere, moja joan nintzen eta horrela apaiz kontuak ahaztu egin zitzaizkidan.

Eta Madrileraino mojak eza-gutzeria?

Bai Madrilen ezagutu nituen eta sei hilabete pasa ostean Hondarribira etorri nintzen. Bertan nobiziatua egin nuen eta beste urte bat klaseak ematen aritu nintzen. Ondoren Barzelonara joan nintzen eta bost urte pasa nituen. Gero berriz, Hondarribira itzuli nintzen eta

ia nire bizitza guztia Hondarribian pasa dut klaseak ematen.

Noiz eta non hasi zinen apaiz lanak egiten?

Idiazabalera etxera joan nintzen batean, baserrietan ibiltzen zen Joxe Agirre apaiza ezagutu nuen. Orain Amezketak bikarioa da baina orduan Alkizarra zegoen. Eta hark eskatu zidan Aste Santuetan joango al nintzen Hondarribiatik Alkizarra irakurgaiak egitera. Bi urte-edo joan nintzen laguntzera. Ondoren, Probintzialak eskatu zidan gauza berdina egitera Galiziara joateko. Beste moja bat eta biok joan ginen hiru urterako. Handik bueltatu eta 1993-1994 urteetan Joxe Agirre gaixotu egin zen eta orduan hasi nintzen lehenengoz igandebatean Bedaioko elizan eta hurrengoan Ugarteakoan ematen. 1998. urtean jubilatuta nintzen eta orduz geroztik Salvatore Pastoral Barrutian nabil ospakizunak ematen. Beti Joxe Agirrearen bitartez izan da.

Nolakoa da zure egun bat?

Jeiki, gosalduta eta 08:30ean Laudes errezatzen dugu komunitatean. Ondoren, meza entzuten dut Kaputxinoetan edo Jesuitetan eta goizero-goizero Seminarioko liburutegira joaten naiz boluntario bezala. De-

netik egiten dut bertan, hautsak kendu, liburu zaharrak ikusi eta sailkatu, euskarazko eta gaztelaniazko doktrinen zerrenda bat egin dut kronologikoki. Eta orain, liburu horietan aurkitutako Lehen Jaunartzeko oroigarrien albuma egiten ari naiz. Bazkaltzera etorri eta bazkaria eta mahaia jarriak izaten ditut, nik dut suertea nik! Aste-ahor behin, Hondarribira joaten naiz katekesia ematera behar-erreak daudelako, baina aurrean azkenengo urtea izango da. Bestetik, autoa dudanez erostetaz arduratzen naiz eta gaineratzean, arratsaldeak libre izaten ditut. Iluntzean bezperak errezatu, afaldu eta ohera.

Noia prestatzen dituzu elizkizunak?

Egunero libre dauzkadan orduetan aritzen naiz. *Mintzo eta Kantuz* liburua bidaltzen didate eta bertan sermoiak ere badaude. Gainera, Joxe Agirre, Basurko eta Iñaki Beristainen sermoiak ere badituz. Aurrena irakurgaiak ikusten ditut, pixka bat pentsatu, meditatuz sakondu eta jendeari zer esango nioken pentsatzen dut. Nik landu eta nire erara prestatzen dut eta motxa bada hobe eta jendea ere gustura! Behin aitona batek esan zuen bezala,

hiru gauza behar dira sermoia ondo egiteko: zerbait eduki behar da esateko, esan eta isildu. **Zertan ezberdintzen dira apaizak ematen duen meza eta zurea?**

Ni ez naiz apaiza eta nik ezin dut mezarik eman. Nirea ospakizuna izaten da. Ezin dut meza erdia deitzen dioguna egin. Lehenik hitzaren liturgia: irakurgaiak, ebanjelioa, sermoia eta herriaren otoitza. Gero esker-erak emateko unea edo meza erdikoa izaten da eta nik ezin dut egin, hori apaizak bakarrik egiten du. Herriaren otoitza egin eta salto egiten dut komunioaren erritura, *Gure Aita* hasi eta bukaera bitarte apaizak bezala. Apaizak, aurreko igandean, forma kontsagratuak sagrarioan uzten ditu eta nik horiek banatzen ditut.

Inoiz pentsatu al zenuen lan hau egitera iritsiko zinenik?

Ez, ezta pentsatu ere. Gustura nago, hauxe zen niri gustatzen zitzaidana; apaiza izatea sotana eta bizikletarekin. Orain aldiz, nire txikitako ilusioa sotanarik gabe eta autoarekin bete dut. Jendeari eta batik bat, apaiz gutxi egoteari esker lortu dut ametsa betetzea.

Tolosaldeko zenbat herritan ari zara?

TXIKITAKO AMETSA

«Apaiza izan nahi nuen sotanarekin bizikletan ibiltzeko. Nire ametsa sotana gabe eta autoarekin bete dut»

SERMOIA

«Sermoia ondo egiteko hiru gauza behar dira: esateko zerbait eduki, esan eta isildu. Motxa bada askoz hobe»

ELIZAK

«Orain, Bedaio, Ugarte, Orendain, Ikaztegieta, Albiztur eta Larraitzen ari naiz. Lehen Baliarrainen ere bai»

Lehenik hamarretan, Bedaio edo Ugarten ematen dut ospakizuna. Igandebatean Bedaion ematen badut hurrengoan Ugarten. Hamaikak eta laurdenetan Orendain, Ikaztegieta edo Albizturren izaten naiz txandaka eta bukatzeko Larraitzera joaten naiz baina soilik apaizari laguntzera. Baliarrainen ere eman izan nituen.

Ongi hartu zaftu jendeak?

Bai, oso ongi. Herri hauetako jendeak nire fedea sendotzen laguntzen dit. Herri guztietan jendea prest dago irakurketak egiteko, abesteko eta laguntzeko. Larraitzera ni joaten naiz laguntzera baina beste herri guztietan bertako jendeak laguntzen nau ospakizuna egiten. Harrituta nago jendeak nola hartzen nauen.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Ez dut gaizki ikusten, aldatu beharra dago. Orain arte bezala ez da izango, beste era batera izan beharko du. Diakono edo ezkontutako jendea arduratu beharko da eta horietako asko oso onak dira. Jende oso ona dago eta benetan esaten dut asko laguntzen dute. Eta hemendik aurrera oso ohikoa izango da; ia ez dago apaizik ez eta mojarik ere.

Noiz arte jarraitzeko asmoa duzu?

Ahal dudan bitartean ariko naiz. Niri hau uztea kostatuko litzaidake baina beste batzuei uzteko beharra ikusten dut. Niri herri txiki horietara joateko eskatu zidatenean, zubi bezala joango nintzela esan nien, beste batzuei prestatu bitartean. Jendea prestatzen ari gara eta orain nik pixkanaka erretiratzen joan behar dut. Gazteago-ei lekua uzteko.

ALEGIA ▶ AHT

426 boz-emailek ezetz esan diote trenaren proiektuari

Parte-hartzea altua ez izan arren, «pozik» daude Parte-Hartzekoak, jasotako botoen %95a baita ezezkoa

NEREA URBIZU

Alegiko biztanleek igandean izan zuten AHT proiektuaren aldekoak ziren ala ez bozkatzeko aukera. Honetara 16 urtetik gorako 451 biztanle animatu ziren, eta hauetatik 426ek ezezkoa erantzun zuten. 21 lagunek AHT defendatu zuten, bi zuri izan ziren, eta beste bi baliogabeak.

Zenbaki hauek portzentatetan jarri gero, «argi ikusten da herriaren ezadostasuna» proiektu honekin: boz-emaldeen %95ak ez du trenik nahi. Dena dela, ez da parte-hartzea oso altua izan, %31 inguruak bakarrik aurkeztu baitzuten botoa. Halere, «pozik» daude emaitzekin Parte-Hartze taldekoak.

Jendearen jakinminerako

Aurreko asteetan zehar, bereziki AHTr buruzko jardunaldiak prestatu zituzten: hitzaldiak informatzeko, bideo emanaldiak eta eztabaida, hain zuzen. AHTren onurak eta alde onak azaltzera Xabier Ezeizabarrena

(Donostiako EAJko zinegotzia) joatekoa zen, baina azken unean ez zen bertaratu eta horren ordez proiektioa izan zen.

Besteetan ere jende askok hartu zuten parte, honela argi geratuz, herritarrengan «ezjakintasuna zela nagusi».

Horrez gain, herrian zehar hainbat panel informatibo jarri zituzten, ibilbidearen berri jakiteko, besteak beste. Dena dela, proiektu honi lotutako informazioa ez da gobernuek eman dutenari esker izan, «ez baitute ematen». Parte-Hartze taldeak egindako lan handiari esker lortutakoa baizik.

DATUAK ▶

Galdeketa. AHTren aldekoa zara, bai ala ez?

Biztanle kopurua. 1.676.

Botoa eman zezaketenen kopurua. 1.448.

Boz-emaileen kopurua. 451.

AHTren aldekoak. 21.

AHTren aurkakoak. 426.

Zurian. 2.

Baliogabeak. 2.



Igandean 451 herritarrek eman zuten botoa. ANDER SORONDO



Jende asko joan zen hitzaldi eta eztabaidetara. PATXI RENOBALDES

IMANOL ARTANO ▶ INGURUGIRO ZINEGOTZIA

«Inportanteena da jendeari informazioa iritsi zaiola»

Imanol Artano Alegiko ingurugiro zinegotzia da (Alegia, 1958). Parte-Hartze taldeko kidea da ere, eta herritarrei AHTr buruzko informazioa ematea izan da hauen helburu nagusia.

Pozik emaitzarekin?

Bai. Batzuk diote parte-hartzea ez dela altua izan, baina badakigu herri galdeketa bat egitea zaila dela. Inportanteena da jendeari informazio ona iritsi egin zaiola, jende guztiari, eta azkenean nahi duenak bozkatu du.

Herritarrei balio izan die zuek egindako lana?

Bai, noski. Alde horretatik pozik gaude: lan handia egin dugu informazioa biltzeko garaian, datuak, kostua, ibilbidea... Gauza asko zeuden egite-

ko, eta orain gutxienez, herritar askok badakite, kezka dago, jakin nahi du...

Harritu zaituen zerbait gertatu da?

Egia esan, gazte jende gehiago espero nuen bozkatzen. Beti pentsatu da gazteek kontzientzia gehiago dutela, agian gehiago kontrolatzen dutela informazioa, baina ez da hala izan. Piska bat harritu nau.

Hori izan da hasleratik zuen helburu nagusia.

Bai. Jendeak ez zuen inolako informaziorik; proiektu horren handi baten aurrean ezer jakin gabe egiteko aukera ematea tristea iruditzen zait, informazio falta handia dagoelako.

Hurrengo pausua zelan izango da?

Informazioa biltzen jarraitu

behar da, baina ez dugu erritimo berean egingo. Beste herri kaltetu batzuetan ere herri galdeketa egin da eta ezezkoa aterata da: hauekin harremanetan egongo gara.

Herrian dauden informazio gune horiek utziko dituzue?

Printzipioz ez: herriren batek nahi baditu (informazio orokorra dute) desiatzen gaude uzteko, probetxugarriak dira. ◀

IKAZTEGIETA ▶

Olaberriak 5. egin du mundialean, scratch-en

ERREDAKZIOA

Leire Olaberria pistako Munduko Txapelketan aritu da asteburuan. Bertan, marka berria jartzeaz gain, maila ona erakutsi du beste proba batzuetan ere.

Scratch-en 5. egin zuen larunbat gauean, ikaztegiatarra onenen artean egon behar dela erakutsiz. Jazarpeneko proban, berriz, 3 kilometroak 3 minutu eta 41 segundotan egin zituen, 15. iritsiz; lehenengoak baino 11 segundu gehiagoan, hain zuzen.

Antolatzaileek Leire Olaberriaren «egoera fisiko ona» azpimarratu zuten, eta podiumera igotzeko aukera handiak izan zituela.

IKAZTEGIETA ▶

KZgunea, hilaren 16an izango da, goizean zehar

Ikaztegiatiko hurrengo KZgunea hilaren 16an izango da, 09:00etatik 13:00etara bitarte. *Enplegu bat bilatu* izango da mintegia, 10:00etatik 12:00etara bitartean.

ALEGIA ▶

Garagardo Azoka maiatzaren 11n eta 12an

Alegian laugarren urtez, Garagardo Azoka egingo dute. Dagoeneko antolatzaileek zehaztu dituzte egunak: maiatzaren 11 eta 12 izango dira festako egun hauek. Aurten, San Miguel etxearrekin egin dute hitzarmena.

TOLOSA MOTOR, S.A.
San Esteban auzoa, 14-A
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Tel.: 943 65 03 37 Faxa: 943 65 29 38
tolosa@tolosa_redpeugeot.com

Expert berria

ELDUAIN ▶ ERREMONTA

Zeberio II.a finaletik gertu dago lehen partida irabazita

Bi partiduetara jokatzeko den Patxaran Baines Masterreko finalerdietan (40-33) irabazi zuten Zeberio II- Agirrezabalak

ASIER IMAZ

Lehen partida frontoi motzean eta itzulerakoa ohiko luzean jokatzeko da Patxaran Baines Erremonte Txapelketan. Patxi Zeberio Masterreko finalerdietako lehen partida irabazi zuen herenegun. Agirrezabala lagun zuela. Beran (Nafarroa) jokatu zen partidari, bi bikoteek ikuskizun ederren eskaini zuten. Zeberio II eta Agirrezabalak Matxin III-Lizaso hartu zituzten mendean (40-33), hala eta guztiz ere itzuleko partida jokatu beharko dute finalera zeintzuk pasako diren erabakitzeke.

Lehia gogorra izan zen, abiadura handikoa eta huts-egite gutxiak. Hasiera batean Lizasok jarri zuen erritmoa. Doneztebeko (Nafarroa) atzelaria indartsu ibili zen partidaren le-



Patxi Zeberio Patxaran Baines txapelketako finalerdietan. M. OLITE

hen zatian, Zeberio II.aren jokua ekidinez. 13-19 aurreratu baziren ere, Lizasoren nekeaz baliatuta, Zeberio eta Agirrezabalaren jokua nagusitu zen ondoren. Elduaindarra erritmoa jartzeko hasi zen eta markagailuari buelta eman zioten. Amaieran zazpi tantoko abantaila lortu zuten bigarren partidara erabakiorrerako.

Zeberio II.a nagusi 2. zatian

Patxi Zeberio guztira 19 tantu eta 4 huts-egite egin zituen. Lau pelotarietan tanto gehienak berak egin zituen gainera. Beste datu esanguratsu bat atzelariaren lana izan zen, izan ere hauek euren aurrelariak baino tanto gehiago egin zituzten. Honela, hasieran Lizasok erritmoa jarri bazuen ere, partidaren bigarren zatian Zeberio II.a izan zen jaun eta jabe.

Emaitza honekin finalera sartzeko aukera handiak ditu elduaindarrek, nahiz eta Matxin III-Lizaso bikoteak itzulerako partidari zeresana izango duten. Larunbat honetan jokatu dute bigarren partida Huartero (Nafarroa) Euskal Jai Berrin. Finaleko beste bikotea, Ezkurra-Martinez eta Uterga-Urrutiaren arteko lehiatik irtengo da. Hauen arteko lehen partidari, Uterga eta Urrutiak irabazi zuten (40-36), frontoi lutzekoa igandean jokatu dute.

IBARRA ▶

Alkateak deituta gaur udal plenoaren bilkura

Chelo Romeo, Ibarra alkatetza, gaur 18:00etarako udalbatza osoaren ohiko bilkurarako deialdia egin du. 15 puntu aztertuko dituzte, galdera eskariak amaieran izango direlarik. Gaietan, 11. Aktuazio Unitatea edo Eguneko Zentroa eraikitzeko asmoa duten lurrean dagoen eraikuntzaren behin betiko desjabetza onartuko dute. 3/2007tik 19/2007rako alkate dekretuak ere aztertuko dituzte gaurko udaletxe bilkuran.

ANOETA ▶

Gaur ikastolan haurrentzako antzerkia

15:30ean haurrentzako zuzendua dagoen *Pizti-hezlea* antzezlan ikusteko aukera egongo da herriko ikastolan. Kutxa gizarte ekintzaz lagundurik. Anoetako KZgunearen inguruan berriz, arduradunek Pazko Astearen itxita egongo dela jakinarazi dute, hau da, apirilaren 10etik 13 bitartean.

IBARRA ▶

Ibarraren hiru taldeak garaile asteburuan

Larunbatean etxean jokatu zuen partidari 6-2 irabazi zuen Ibarra Soloarte bizkaitarren aurka. David Pradosen hiru gol sartu zituen, Unai Labakak bi eta Victor Silvak bakarra. 2:47 minutu falta zirela, Prados tolosarra kaleratua izan zen. Jubenilek berriz, etxetik kanpo garai-pena lortu zuten 2-3ko emaitzaz Euskal Koparen barnean. Kadeteek ere 6-2 irabazi zioten Urretxuri.

ASTEASU ▶ POLITIKA

Ezker abertzalearen aurkezpena

A. Imaz ▶ Usarrabi pilotalekuan, Asteasuko ezker abertzaleak «hauteskundeetan parte hartu behar duela» eskatu zuen. Helburu horrekin egindako herri programa aurkeztu egin zuten herenegun. Euria medio, frontoian egin zuten ekitaldian 60 lagun inguru elkartu ziren. ANDER SORONDO



hilberria ▶

M^a Angela Antia Goiburu

Herenegun hil zen, 84 urte zituela

Argi bat itzali da hemen lurrean, berri bat piztu da han, zeru ederrean, beti jarraituko duzu ama gure bihotzean.

Senarra, seme-alabak eta bilobak.



Oharra ▶ Hileta gaur, asteartea, arratsaldeko ZAZPIETAN Mikel Goiaingeruaren parroki elizan egingo da, gorpua bertan dela.

Hilberria ▶ Gorpua Beasaingo Goierri beilatokian dago.

IDIAZABAL, 2007ko apirilaren 3a

HILBERRIAK URTEURRENAK ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN
120.000 IRAKURLE

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

LEITZA ▶ PILOTA

Bostetik partida bakarra irabazi dute Aurrerakoek

Jon Jaunarenak 22-9ko emaitza lortu zuen Antiguoko Txapelketan, kadeteen mailan

N. GARZIA

Leitzako Aurrera Pilota Eskolako pilotariek ez dute asteburu honetan zorte gehiegi izan, jokatu dituzten 5 partidetatik bakarra irabazi baitute.

Jon Jaunarena izan da asteburu honetan irabazle suertatu den bakarra, izan ere, Antiguoko Txapelketan 22-9 irabazi baitzuen.

Nafar Jokoei dagokionez, asteburuan jokatu diren finaletan Leitzako bi bikotek parte hartu dute. Anartz Olanok eta Mikel Sagastibeltza Eguesek, alde batetik, eta Iker Sagastibeltzak eta Josu Zabaletak, bestetik. Ez lehenengok, ez

bigarrenek ez zuten irabaztea lortu, azkenekoek tanto bakar-rerengatik galdu zuten arren, txapelburorde geldituz.

Aritz Sagastibeltzak GRAVN txapelketan parte hartu eta galdu egin zuen, 9-22 emaitzarekin, Azkeneko orduko aldaketengatik binaka jokatu zuen, igandean eta Antzuolan, Tolosan jokatu ordez.

22 urtetik beherako emakumezkoen gomazko paletan, Saioa Iraolak, berriz, ezin izan zuen txapelketa honetan parte hartu gaixo zegoelako eta Iera Agirrek Saioa Aristorenarekin jokatu zuen. Hauek ere galdu egin zuten 30-24eko emaitza lortu baitzuten.

LEITZA ▶ TXIRRINDULARITZA

Mikel Nievek beste garaipen bat lortu du

36. Valenciagaren Oroimenezko proba irabazi zuen leitzarrak herenegun Eibarren



Mikel Nieve III. Aiztondo Klasikoan. I. OTEGI / A.P.

N. GARZIA

Mikel Nieve herenegun lehenengo gelditu zen 36. Valenciagaren Oroimenezkoan, Eibarren. Nieve bakarrik iritsi zen helmugara eta 24 segundo atera zizkion Novoari.

36. edizio hau gogorra izan zen, proba honetan ohikoa den bezala, oso eguraldi txarra egin baitzuen. Elgetako aldapak eta gero karreraren lehenengo zatiketa ikusi zen, hoge txirrindulari inguruk

ihes egitea lortu baitzuten. Aurreraxeago, Mikel Nievek eta Joaquin Novoak taldearekiko tarteareagotzea lortu zuten eta elkarrekin egin zuten ia lasterketa guztia. Azkeneko 10 kilometroetan leitzarrak ihes egin zuen, froga irabaziz. Honela, 172,8 kilometroak 4 ordu, 28 minutu eta 28 segundotan egin zituen. «Ez nuen irabaztea espero. Nire helburua aurrean egotea zen eta ongi ibiltzea», dio txirrindulari leitzarrak.

LEITZA ▶ FUTBOLA

Aurrera, azkeneko partida eta gero, hirugarren doa

Jarraian bi partida galdu ondoren, asteburu honetan leitzarrek bere ohiko forma erakutsi eta irabazi egin zuten



Aurrerako futbolariak, Arkixkilen jokaturako partida batean. J. ASTIBIA

NAIARA GARZIA

Leitzako Aurrera taldeak aurreko partidetak maila erakutsi du asteburuan, bi norgehiagoka jarraian galdu ondoren, azkeneko partida irabazi egin baitzuen. Honela, aurrera jarraitzeko beharrezkoak zaidizkion beste 3 puntu lortu ditu asteburuan.

Azkeneko partida eta gero, Aurrera hirugarren doa sailkapen orokorrean, San Cristobal eta Ilumberriren atzetik. Lehenengo postutik urrunago dago Aurrera, San Cristobalek 26 puntu baitauzka, eta Aurrerak 16. Halere, eta azkeneko bi norgehiagokak galtzeak horretan zerikusirik izan duen arren, ez da ahaztu behar Aurrerak eguraldi txarra dela eta bi partida jokatzeko dituela. Bertan behera utzitako lehenengo partida

urtarrilaren 28an izan zen, lehenengo elurteekin. Baina martxoaren 25ean Universidad de Navarraren aurkakoa ere bertan behera utzi zuten. Aurrerako arduradunek azaldu duten bezala, «elurrerengatik norgehiagoka atzeratzea erabaki genuen. Orain federazioarekin hitz egin beharra dugu, beste egun bat jartzeko».

Bestalde, urtarrilean jokatu gabe gelditu zena azkenean ostegun honetan jokatu dute. Arrazoi honengatik, asteburuan Beriaien aurka jokatu zuten arren, ostegunean berriro bi taldeak lehiatuko dira, atzeratutako partida hori berreskuratzeko.

Igandean Beriaien aurka irabazi egin zuten leitzarrek, eta ostegunean zer egiten duta ikusteko dago. «Aspaldiko

partez azkeneko 2 partidatan eman ez genuen itxura ona errekuperatu genuen. Beste partidetan baino aukera gutxiago sortu genituen, baina denak aprobeztatu genituen».

Lehenengo gola Javi Urtiaga sartu zuen, penaltiz, eta bigarrena, Iñaki Antolinek. «Irabazteko beharra geneukan, sailkapena estutu xamarra baitago». Izan ere, Aurrera eta gero sailkapenean puntu bateko tartearrekin beste bi talde daude, 15 punturekin, Bidezorra eta Infanzones, eta 14 punturekin, Beriaien.

«Gure helburua igotzea da oraindik, hirugarren baikoaz. Gure areririk nagusia jada ez da San Cristobal. Orain sailkapenean inguruan daudenei irabazi behar diegu, ahalik eta alde gehien ateratzeko», diote Aurrerako arduradunek.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. «Zer iritzi duzu Voith-Gorostidi etxebizitza tasatzen inguruan?». Sartu gure web orrian eta eman zure iritzia gai honi buruz bai eta Tolosaldeko hitza.info webguneak eskaintzen dizkizun beste hainbat gairen inguruan.

iragarki laburrak ▶**LANA**

Sukaldaria. Villabonan sukaldaria behar da. 943 69 19 33.

Harreragileak. Udaletxeetarako. Interesatuek deitu 943 44 48 66ra.

Gidariak. Erakunde publikoetarako. 943 44 48 66.

SALGAI

Pisua. Berazubi auzoan, pisu eraberritua. Ikuspegi ederrak zezen-

plaza aldera. Ikusteko modukoa. 608 97 82 88.

Pisua. Leitzan pisua salgai, bizitzaren sartzeko prest. 150.000 euro.

Telefono zenbakia: 686 69 10 87.

Egurra. Sutarako pago egur lehorrak salgai. Etxera entregatzen da. 615 75 57 62.

Trikitixa. Trikitixa berria saltzen dut. Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara: 669 67 36 49.

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. Bizi Nahi jubilatutako elkarrekin irteera antolatuta du hilaren 14rako Xabiererra: Las Campanas bodega, Sost del Rey Catolico, bazkaria Zangozan, Xabier eta Iruñea. Izen-ematea, elkartean 25 eurotan (27 ez bazkideek).

Tolosa. Arrautzaren Festaren baitan, *Arrautzak+Kantua* hitzaldia emango du David de Jorge sukaldariak eta Ignacio Ruiz de Alegria abeslariak Fronton jatebetean 19:30etik aurrera.

Tolosa. Haur Liburuaren Eguna dela eta, 'Sirenatxoak' ipuinari buruzko erakusketa izango da Haur Liburutegian, ipuinek ikastetxeetan egindako marrazkiekin.

Tolosa. Oargi mendi elkarrekin irteera antolatuta du Gredos mendikatera Aste Santurako, Almanzor, La Galana, Meapoco... mendiak igoz. Informazioa eta izen-ematea, 637 830380 telefono zabakian.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.
Tolosa. Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.

IRRATIA

Txolarre irrátia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotza* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotza* (errepikapena).
 20:00-21:00. *Goiko eskolatik betti.*
 21:00-22:00. *Izarrak eta ilargia.*

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Gerontologiko berria eraikitzeko lanak abiarazi dituzte

TOLOSA ▶ Gerontologiko berria eraikitzeko lehen urratsak hasi dituzte. Zentroa Alhondiga inguruan, Udalak 50 urtetarako utzitako lur-sailean egingo dute eta bertan zegoen aparkalekua historia da jada. Azken egunotan eraispin lanei ekin diete; ondoren, eraikuntzerako argia eta ura jartzeko lanak egingo dituzte eta zola egokitu ondoren, Gerontologi Zentro berriaren eraikuntza lanei emango zaie hasiera. 15 milioi euro inguruko inbertsioa egingo dute zentro hau aurrera eramango duten enpresek. Zentroak mendekotasunean bizi diren 128 lagunentzako tokiak babestutako 20 etxebizitzak eta 60 lagunentzako eguneko zentroa bilduko ditu. ESTI EZEIZA

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Garazi Beloki Tobar (Alegia).
 Gaur 4 urte. Zorionak Amalur eta ebekoen partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza argazki lehiaketa

opor hauetan atera argazkiak

ARGAZKIAK NORA BIDALI

- ▶ P. elektronikoa: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
- ▶ Postaz: Argazki Lehiaketa. Tolosaldeko eta Leizaldeko Hitza. Araba etorb 5, atzea • 20400 TOLOSA

Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leizako HITZAren egoitzetara ekarri

ONINARRIAK: www.tolosaldeko-hitza.info

Sari nagusia

BIDAIA paregabe bat zure neurrira

2 lagunentzat 4 eguneko egonaldia, mantenu erdiarekin Santanderren edo Errioxan

Bidaia Agentzia bidaide

Erniobera, 6-behea • 20150 Villabona
 Tel.: 943 692 693
 bidaide@gruposercor.com

ZOKETA APARTAK

PARTE-HARTZAILE ETA BOTOEMAILA guztien artean HITZAren motxila eta mendiko gerriko poltsa zozkatuko dira